



AFRIKA 2012

Etorkizuna bere esku

Afrikaren aldeko Taldea

Efemerideak, pertsonalak nahiz kolektiboak, gure identitatearen kontzientzia berreskuratu eta sakontzeko une bereziak izan behar dira, egindako ibilbidea aztertu eta etorkizuneko konpromisoak berresteko.

Espiritu horrekin, bada, Afrikaren aldeko Taldea osatzen dugun erakundeok, kontinente horrekin senidetuta, Afrikaren Eguna ospatzeko elkartu gara, gaur, 2012ko maiatzaren 25ean, eta bertako herriei laguntzeko borondatea berretsi nahi dugu, politikan, kulturen, ekonomian eta nekazaritzan subiranotasun osoa lor dezaten.

Baina horretarako, beren ibilbidea egin behar dute, beren erritmoan, beraiek hartutako erabaki eta apustu burujabeen bidez, eta ez haien izenean baina haien errealitateetik kanpo dauden botere ekonomiko eta politikoek agindutako estrategien arabera, sarritan gertatzen den bezala.

Beharbada, Afrikako errealitaterik dramatikoena elikagaien egoera larria izango da. Gosete handia baitago Afrikako Adarrean eta Sahel eskualdean, milioika pertsonaren bizia arriskuan jartzen duena nutrizio eskasagatik. Bestalde, milioika hektarea saltzen edo lagatzen ari dira atzerriko gobernuei eta multinazionaliei.

Herrialde askotan zapuztuta gelditu da nekazaritzaren garapena - eta, ondorioz, garapen integrala-, diruz lagundutako elikagaiak inportatu direlako eta Familia Nekazaritza alde batera utzi delako, kanpotik etorritako formulen mesedetan. Formula horien oinarrian haxe baitago: elikagaien ekoizpena kanpotik etorritako finantziazioaren mende uztea, bertako Familia Nekazaritzan oinarritu ordez. Hala ere, gauza jakina da Familia Nekazaritzak lana ematen diela biztanleen erdiei, eta, bertan behera utzita badago ere, kontsumitzen diren elikagaien %70 ekoizten dira bide horretatik.

Afrikako nekazari-erakundeak gero eta gehiago ari zaizkie eskatzen beren gobernuei bertako aurrekontu-baliabideak erabil ditzatela -eta ez bestelako interesak dituzten atzerriko diruak-, nekazaritza politika nazionalak finantzatzeko orduan, horrela, bertako nekazariak sendotu eta elikagaien Segurtasuna eta Subiranotasuna benetan lortu ahal izateko. Afrikako esaera zahar batek dioenez, “beren janaria ekoizten ez duten herriak ez dira herri libreak”.

Oinarrizko helburu hori lortzeko bidean, garrantzi handiko aurrerapausoa izan da FAOren Elikagaien Segurtasun Batzordeak, 2012ko maiatzaren 11n, onartu dituen Gobernagarritasun Arduratsurako Borondatezko Zuzentarauak, Lurra, Arrantza-tokiak eta Basoak edukitzeari dagozkionak.

Zuzentarau horiek, ahalik eta lasterren legeria nazional bihurtu behar dutenak, lehentasuna ematen diote Familia Nekazaritzak lurra, itsasoa eta beste baliabide natural batzuk eskuratzeari, eta bitarteko legalak eta teknikoak zehazten dituzte baliabide horien zertarako lehenetsia bermatzeko eta babesteko.

Afrikak bere etorkizuna eta garapena bere gain hartzeko duen eskubidea aitortzea guztiz bateragarria da egiazko elkartasunarekin, eta bat dator bere helburuak,

AFRIKA 2012

Etorkizuna bere esku

baliabideak eta emaitzak lortzeko hezkuntza, osasun, nekazaritza prozesuekin.

Herrien Europatik ahalik eta baliabiderik gehien jarriko ditugu, Afrika bere etorkizunaren jabe izango den eguna lehenbailehen iritsi dadin. Ordua baita.

*Afrikaren aldeko Taldea osatzen dugun 20 erakundeok laguntzen ari gara gurekin lankidetzan ari diren Afrikako elkarte eta erakundeei; lankidetza hori hezkuntza eta osasuna hobetzeko proiektuetan eta Gizarte Zibileko erakundeak sendotzen, genero-berdintasuna defendatzen, nekazaritza eta artisau-lana garatzen ematen dugu.

Afrikako Eguna 2012 honetan, Afrikako gizon eta emakumeekin dugun elkartasun konpromisoa berretsi nahi dugu, garapen solidarioan elkarrekin aurrera egiteko, pertsona bakoitzaren giza eskubideak eta askatasuna errespetatu daitezen, bai Afrikan, bai beste kontinente guztietan, oinarritzko beharrianak barne: janari osasungarria eta nahikoa, kalitatezko osasuna eta hezkuntza, etxebizitza eta azpiegitura duinak.